**5196**

307/2005 DEKRETUA, urriaren 18koa, Néstor Basterretxea Arzadun jaunari «Lan Onari» goraipamena ematen diona.

Néstor Basterretxea Arzadun jaunak eremu sortzaile eta artistikoan eguneroko zeregin profesionala burutzean, sekulako ardura, etengabeko ahalegina eta ekimen aipagarria erakutsi ditu. Meritu hauek guztiak nabarmentzearren, Goraipamen eta Ohoreak emateko modua arautzen duen urriaren 22ko 236/1996 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, lehendakariak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko urriaren 18an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe xedatu dut.

Néstor Basterretxea Arzadun jaunari «Lan Onari» goraipamena ematea.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko urriaren 18a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

**5196**

DECRETO 307/2005, de 18 de octubre, por el que se concede la distinción «Lan Onari» a D. Néstor Basterretxea Arzadun.

En atención a los méritos y circunstancias que concurren en D. Néstor Basterretxea Arzadun, que se ha distinguido de modo extraordinario por su dedicación, constancia y espíritu de iniciativa en el desempeño de su labor profesional en el ámbito creativo y artístico, y de conformidad con lo establecido en el Decreto 236/1996, de 22 de octubre, por el que se regula la concesión de Distinciones y Honores, a propuesta del Lehendakari, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en reunión celebrada el día 18 de octubre de 2005,

Vengo en conceder a D. Néstor Basterretxea Arzadun la distinción «Lan Onari».

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de octubre de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

**5197**

EBAZPENA, 2005eko irailaren 22koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Kanpoko gizatalde eta etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko beken esleipena egiteko dena.

Irailaren 30eko 221/2003 Dekretuaren bitartez, Kanpo Harremanetan eta Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko bekak arautu ziren. Dekretu horren 2. artikuluko 1. paragrafoaren arabera, Lehendakaritzaren idazkari nagusiak 2005eko maiatzaren 30eko ebazpena eman zuen beka horietara biltzeko deia egiteko.

Irailaren 30eko 221/2003 Dekretuaren 7. artikuluaren bidez sortutako Aukeraketa Batzordeak esleipen proposamena egin zuen aipatutako Dekretuaren 10. eta 11. artikuluekin bat etorriz. Lehendakaritzaren idazkari nagusiaren deialdi ebazpenaren bidez izendatzen ziren Aukeraketa Batzordeko kideak.

Hori guztia ikusita, hauxe

**5197**

RESOLUCIÓN de 22 de septiembre de 2005, del Secretario General de la Presidencia, por la que se adjudican las becas de especialización de personas en el ámbito de las Colectividades y Centros Vascos en el exterior.

De conformidad con lo establecido en el artículo 2, apartado 1, del Decreto 221/2003, de 30 de septiembre, por el que se regulan becas de especialización de personas en el ámbito de las Relaciones Exteriores y de las Colectividades y Centros Vascos en el exterior, por Resolución de 30 de mayo de 2005, del Secretario General de la Presidencia, se procedió a la convocatoria de 2 becas de especialización en el ámbito de Colectividades y Centros Vascos en el exterior.

La Comisión de Selección designada por el artículo 7 del Decreto 221/2003, de 30 de septiembre, cuyos miembros se nombran en la Resolución de convocatoria, ha elevado la correspondiente propuesta de adjudicación, de acuerdo con los artículos 10 y 11 del citado Decreto.

A la vista de todo lo cual,